

NAFARROAKO URTEGI NAGUSIEK, BAINA, UR BEHAR HANDIA DUTE, BATEZ ERE LIZARRERRIKO ALLOZKOAK

Uda lehorra izan den arren, Euskal Herriko urtegi gehienak aski beteta daude

■ Iazko udazken umela eta negu hotzari esker, urtegiak urez aski beteak daude, uda oso lehor joan den arren

■ Heldu den udazkena idorra izanik ere, urtegi gehienek lau zapabost hilabeterako ur hornikuntza ziurtatzen dute

■ Herenegun amaitu zen urte hidrologikoa, eta atzo eman zitzaion hasiera berriari, «nahiko egoera normalean»

I. Petxarroman / Donostia

ASPALDIKO udarik lehorrena izan da aurtengoa Euskal Herrian, bereziki kantauriko ertzean. Alabaina, urtegieta-ko ur kopuruari erreparatuz gero, egoera ez da beste urte-etakoa baino askoz ere okerragoa. Izan ere, oro har aurreko urteotan baino ur pixka bat gutxiago izan arren, berdin antzera daude.


Egoera berezi horrek badu azalpen bat, Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzako teknikari Jose Antonio Arandak azaldu duenez: «Iazko udazkena oso euritsu izan zen. Ibaiak gainezka egitear jarri ziren, urtegiak bete-bete egin ziren. Ondoren negua etorri zen. Euri aldetik negu normala izan zen, baina oso hotza, hemen izaten dena baino bi gradu hotzagoa batez beste. Jakina, egoera oso onean sartu ginen udaberrira, ur produkzio handiko hilabeteak izan genituelako aurretik».

Hori dela eta, aurtengo uda lehorra izan arren —oso lehorra, batez ere Bizkaialdean—, urtegiak aski beteak ageri dira, edo beste urteetan bezalatsu urtaro honetan. Aurretik izandako udazken euritsuak eta negu hotzak ahalbide dute urtegiak oraindik ere urez nahiko beteak izatea.

Uda eragina izan du lurrean, oso lehor baitago, eta baita iturburu eta iturri askotan ere. Horregatik, iturburu horietatik hornitzen diren herriek arazoak izan dituzte uda honetan, batez ere Nafarroan eta Araban.

Jaurlaritzako teknikariak dioenez, «egoera normala» da urtegiengan. «Lehenko urteko kopuruetatik behera gaude pixka bat. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako urtegiek batez beste %56,2ko ur kopurua dute une honetan. Hori estatistikoki ongi dago urte garai hau izateko, kontuan hartu behar baita urtaro lehorrean gaude».

Euskal Herriko urtegi nagusiak



■ ■ ■ Bereziki hutsak daude Irabiako eta Allozko urtegiak, Iratiko oihanean eta Lizarrerrian

Hornidura arazorik ez

Gauzak horrela, ez da hornidura arazorik izango hilabete batzuetarako, Arandak dioenez. «Gutxienez, datorren urtea arte ziurtatua dago hornidura kasurik okerranean ere, alegia, batere euririk ez eginda ere udazken osoan». Gainera, Arandak gogoratu du hemendik aurrera euria «askoz ere produktiboago» dela.

Egoerarik zailena, urtero gertatzen ohi den lege, Nafarroako urtegiengan dago. Aurtin bereziki hutsak daude Allozkoa —Lizarrerriko urtegia— eta Irabiakoa —Iratiko oihanean—. Esako urtegia iaz baino hobeto dago, baina udazken hasiera honetan ohi denez, edukieraren erditik behera dago, dezente.

Edukieraren erditik behera dago Ordunteko urtegia ere; Burgosko lurretan egonda ere, Bilbo handia urez hornitzen du urtegi horrek.

Halaber, bost hektometro kuboko edukiera baino txikiagoa duten urtegi ugari daude Euskal Herri osoan, eta haien egoera, oro har, ona da. Gipuzkoan, esaterako, bost urtegi daude baldintza horiekin, eta denek dute %50 baino gehiago: Lareok %54 du, Arriaranek %56, Endarak %54, Barrendiolak %68 eta Aixolak %85.

Ipar Euskal Herrian ur hornidurarako erabiltzen diren gutxi daude. Ibardi gainean dago bat, Herburukoa, baina haren edukiera ez da iristen hektometro kubo batera. Une honetan edukieraren %40 inguru dauka urez bete, hango zaindaria EGUNKARIARI azaldu dioenez.



San Antongo urtegia, Bidasoaldea hornitzen duena, atzo ateratako irudian. Kantauri ertzeko urtegi gehienak bezala, bere edukieraren erditik gora dago.

GARI GARAIALDE